

POBREZIAREN KRIMINALIZAZIOARI EZ! DSBEren LEGE HONI EZ!

Gaur, 2023ko martxoaren 29an, Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Euskal Sistemaren Legea sartuko da indarrean, eta DSBEaren, EPOaren, Gizarteratze Aktiboko Hitzarmenen eta GLLen egungo legeria, 2008tik indarrean zegoena, erabat indargabetuko du. Lege hori 2022ko abenduaren 29an atera zen aurrera, EAJren, PSEren eta Elkarrekin Podemosen aldeko botoekin eta EH Bilduren abstentzioarekin, nahiz eta gizartearen gaitzespen zabala eragin. Euskal Herriko Eskubide Sozialen aldeko Gutunak ere gaitzespena helarazi zuen, bai Legebiltzarrean egindako agerraldian, bai legea onartu aurretik kalean egindako mobilizazioetan.

Lege hori 1989. urteaz geroztik onartzen den bosgarrena da, eta ez dakar inolako berritasunik pobreziaen aurkako borrokaren eremuan. Hainbat gai nagusi daude, ordea, kezka bizi ditugunak:

- Legeak zehapen eta kontrol sistema berriak ezartzen ditu; Lanbideko ikuskatzaileen kidego berri bat sortuko du. Hasierako plantilla 25 pertsonakoa izango da, eta agintaritzaren agentetzat hartuko dira ikuskapen jardueran. Neurri hori guztiz ulertezina da DSBE jasotzen duten pertsonen arteko iruzurra barregarria denean, % 0,7tik beherakoa. Gizarte prestazioak kobratzeko eskubidea duten pertsona pobreen kriminalizazioa eta estigmatizazioa baino ez du bilatzen.
- Lege berriak ez du ezabatzen Eusko Jaurlaritzak 2012an aurrekontuen bidez ezarri zuen DSBEaren zenbatekoen %7ko murrizketa. Zenbatekoak kalkulatzeko eredia ere aldatzen du, kasu guztietan txikiagoak baitira 2008ko legea aplikatuzetik datozenak baino, LGS-rekin inongo loturarik gabe.

Era berean, salatzen dugu Eusko Jaurlaritzak saltzen dituen hobekuntza guztiak. Pobreziaekin amaitzeko pentsatuta ez dagoen lege honek letra txikia du eta DSBEa eskuratzea zailtzen duten betekizunak ugariak dira:

- DSBE jasotzeko eskubidea izateko adina egungo 23 urtetik 18ra jaistea erabat baldintzatuta dago. 18 urtetik gorako pertsonak DSBE jasotzeko baldintza ugari bete beharko dituzte eta kasu gehienetan ezingo dituzte bete.
- Erroldako 3 urteak bakarera murrizteak bakarrik edukiko du eragina adingabeak edo desgaituak dituzten familiengan.
- Etxebizitzako Diru sarrerak Bermatzeko Errenta kobratu ahal izateko etxebizitza bakoitzeko 2 bizikidetzaren unitateren muga kentzea lotuta dago

laguntza horrek jasandako murrizketarekin, %15eko murrizketa, hain zuzen ere.

EHko Eskubide Sozialen Kartatik salatu nahi dugu egungo egoeran gizartearen parte handi batean pobretzea areagotzen ari dela, eta politika publikoen norabidea aldatzea eskatzen dugu, egoera horri errotik heltzeko eta bizi baldintza duinen alde egiteko. Horregatik, pertsona pobreak kriminalizatzea baino bilatzen ez duten neurriak bertan behera uztea eskatzen dugu, eta aldarrikatzen dugu pobreziarekin behingoz amaituko duen lege bat.

Argi daukagu borondate politiko kontua dela, eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak jarraituko duela pertsona guztientzako bizitza duina bermatzeko presioa egiten, gaur Eusko Legebiltzarraren aurrean egin den bezalako mobilizazioekin.

Gasteiz, 2023ko martxoaren 29a